

ZOZKETAREN OINARRIAK

2018KO IRAILEKO ONLINE BANKA KANPAINAREN OINARRIAK 300 €-KO 10 SARIEN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok –aurrerantzean LABORAL Kutxa-, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) - Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du. Hain zuzen, 300 €-ko 10 sari zozkatuko ditu.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Sustapenaren aldian, 2018ko irailaren 3tik urriaren 31ra bitartean, Online Bankan sartzen diren 18 urtetik gorako bezeroek, pertsona fisikoak direnek, hartuko dute parte zozketan. Online Bankan sartzen direnean, zozketarako partaidetza bat eskuratuko dute. Zozketatik kanpo geratuko dira zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak, baita, LABORAL Kutxaren iritziz, sustapen honetan iruzurrez jokatzeko dutenak ere. Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoak. Horrela ez bada, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

4.- zozketa

Zozketa azaroaren 6an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Gainera, zozketan ordezeko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere. Entitatearen datu-basean gordetako bezeroaren datuak erabiliz saridunarekin harremanetan jartzetik ez badago zozketa-dataren hurrengo 10 egun baliorduneko epean, saria ordezkioentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

3 HUAWEI P10 LITE smartphone zozkatuko dira. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta dagozkion zergak ordaindu beharko dira. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan.

Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok <https://www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak> orrialdean kontsulta daitezke.

